AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5385

1991/2024 EBAZPENA, urriaren 16koa, Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez baliogabetzen baita Pilar Echevarria Villegas andrearen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuko Galdakaoko Lehen Mailako Arretako Unitateburuaren lanpostuaren eginkizunen esleipena.

228/2010 Ebazpenaren bidez esleitu zitzaizkion Pilar Echevarria Villegas andreari Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualdeko Eskualdeko Galdakaoko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko Erabakiaren bidez, Bizkaiko Osasun Barrutian zerbitzu sanitario integratuetako hiru erakunde eratu ziren: Bilbo-Basurtu, Barrualde-Galdakao eta Barakaldo-Sestao.

Barrualde-Galdakaoko ESIan, integratu egin ziren Barrualdeko Eskualdeko Lehen Mailako Arretako eta Galdakao-Usansoloko Ospitaleko zerbitzu erakundeetako baliabideak.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Pilar Echevarria Villegas andreari egindako Galdakaoko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion eginkizunen esleipena baliogabetzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuan, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko martxoaren 27tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari eta Barrualde-Galdakaoko Erakunde Sanitario Integratuari ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Galdakao, 2024ko urriaren 16a.

Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentea,
JON GUAJARDO REMACHA.